

2023ko maiatzaren 9a

# Euskadik Europaren Eguna ospatzen




**Europar-Batasunak  
kofinantzatua**  
**Cofinanciado por  
la Unión Europea**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA / DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA**  
Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza / Dirección de Política de Cohesión y Fondos Europeos



*“Europa ez da behingoan egingo, ezta baterako obra bakarrean ere: lehenik eta behin egitezko elkartasuna sortuko duten gauzatze zehatzei esker egingo da”.*

*Schuman adierazpena. 1950eko maiatzaren 9a.*



# Ospatzeko eguna

1950eko maiatzaren 9an, Bigarren Mundu Gerra amaitu eta bost urtera, Robert Schuman Frantziako Kanpo Arazoetako ministroak Ikatzen eta Altzairuaren Europako Erkidegoa (CECA) sortzea proposatzen zuen adierazpena egin zuen. Erkidego horren helburua bertako kideek gai horien ekoizpena bateratzea zen. Pentsatu zen, ondo pentsatuta, hain zuzen ere, interes ekonomikoen bat-egiteak bakea zaintzen eta bizitza-maila handitzen lagunduko zuela, eta Europa batuagoa lortzeko lehen urratsa izango zela. Schuman Adierazpena izenez ezagutzen den Manifestu hori izan zen gaur egungo Europar Batasunaren ernamuina. 1985ean, Milango Goi Bileran, maiatzaren 9a Europaren Eguna izatea erabaki zen, horrela EBko sinboloetako bat bihurtuz, txanponarekin, banderarekin, ereserkiarekin eta 'Bat eginda aniztasunean' leloarekin batera.



Europar-Batasunak  
kofinantzatua  
Cofinanciado por  
la Unión Europea



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA / DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA  
Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza / Dirección de Política de Cohesión y Fondos Europeos



## Europa indartsu eta integratuagoa

Euskadik pertsona, gizarte-kohesioa, jasangarritasuna eta integrazioa ardatz dituen etorkizuneko proiektu honetan hartzen du parte. Horregatik –eta, Schuman, Monnet, Adenauer, De Gasperi eta Spaak-ek bezala, hazi europeista erein zuten pertsonen espirituari jarraituz–, kultura-aniztasuna eta inklusioa, bizi-kalitatea eta ongizatea sustatu, giza eskubide unibertsalak eta bizikidetzak defendatu, eta giza garapen jasangarriaren eredu bultzatuko duen Europar Batasuna eraikitzen egiten du lan. Gainera, subsidiarotasun-printzipioan oinarrituta egongo den eta bere adostasunak behetik gora eraikiko dituen eta Europako soziologia osatzen duten herriei, nazioei, gizarteei eta gobernuei lekua emango dien Europar Batasuna.



Europar-Batasunak  
kofinantzatua  
Cofinanciado por  
la Unión Europea



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA / DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA  
Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza / Dirección de Política de Cohesión y Fondos Europeos





# Gaitasunen Europako Urtea

2023ko maiatzaren 9a, gaitasunen defizita konpontzen eta bizialdi osoko ikaskuntza bultzatzen lagundu nahi duen Gaitasunen Europako Urtearen hasiera ofiziala ere bada. Horretarako, helburu hauek finkatu dira:

- Prestakuntzan inbertsioa sustatu, pertsonak beren lanpostuetan jarraitzea edo beste lanpostu berri batzuk aurkitzea ahalbidetuz.
- Gaitasunek enpresen beharrei erantzungo dietela bermatu, trantsizio ekologikoan eta iraultza digitalean arreta jarrita.
- Pertsonen nahiak eta gaitasunak lan-merkatuko aukeretara egokitu, trantsizio ekologiko eta digitalerako eta susperraldi ekonomikorako batez ere.
- Beste herrialde batzuetako gaitasunak eta talentua erakarri.



Europar-Batasunak  
kofinantzatua  
Cofinanciado por  
la Unión Europea



EKONOMIA ETA OGASUN SAILA / DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA  
Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza / Dirección de Política de Cohesión y Fondos Europeos



**Europar-Batasunak  
kofinantzatua**  
**Cofinanciado por  
la Unión Europea**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**EKONOMIA ETA OGASUN SAILA / DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA**

Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritza / Dirección de Política de Cohesión y Fondos Europeos